

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarte

2022ko apirilak 1 · 1223. zenbakia



## HAMABOST URTE ETA GERO RIALTOTIK ERREBALERA BUELTAN

Varilux.

PROGRESIBOEN

2. PAREA  
OPARI



Kontuz hartu aplikazioan konpoinaren erabilerariak

Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
50 urte zuen ikusmena zaintzen

[www.multioplicas.com](http://www.multioplicas.com)

Nahi bezain urrun  
iristeko aukera  
[www.aldatze.eus](http://www.aldatze.eus)

**K**



**ALDATZE**

Col. Sta. M<sup>a</sup> de la Providencia  
ALDATZE Ikastetxea

Aldatze kalea, 5 20600 EIBAR

Tfnoa. 943 70 11 50 [www.aldatze.eus](http://www.aldatze.eus)

**AURREMATRIKULA**

MARTXOAREN 28tik  
APIRILAREN 8ra



*aldatze*  
**batxilergoa**

American High  
School Diploma  
[www.academica.school](http://www.academica.school)



ACADEMIA  
AMERICANA

*aldatze*  
**haur-eskola**

# zarelakopara

Izen-abizenak \_\_\_\_\_ Helbidea \_\_\_\_\_

Tfnoa / emaila \_\_\_\_\_ NAN \_\_\_\_\_

Jaiotze data \_\_\_\_\_ K/K zenbakia \_\_\_\_\_

**eta kitto!**  
euskara elkarteak

**Urkizu 11**

943 20 09 18 - 943 20 67 76

[elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus)

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuak	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

# Jarraitu gaitzazu!



Abian Debabarreneko V. Lanbide Heziketa Azoka hartu zuten Ipurua foball zelaiko instalazioek martxoaren 22tik 24ra Azoka martxan egon zen hiru egunetan Debabarreneko Lanbide Heziketako 8 ikastetxeek (Armeria Eskola, IMH, Meka Lanbide Eskola, Uni Eibar-Ermua, Kardala Akuakultura Eskola, Mutrikuko Institutua, Eibarko Oinarrizko LH eta Ermua-Mallabiko Oinarrizko LH) beraien eskaintza ezagutzera eman zuten.



21 urterekin, Julenek ibilbide luzea egin du musikagintzan, eta oraingoan bere proposamen artistiko pertsonalena dakarkigu, zenbait diziplina artistiko uztartu nahian (musika, diseinua, argazkigintza, bideogintza...). Datorren asteko eguenean, apirilak 7, kontzertua eskainiko du Coliseoan, 19:30etik aurrera. Sarrerak Kutxabank bitartez eskura daitezke. Orain arte egindakoaz eta proiektu berriei buruz hitz egiteko bildu gara Eibarko gaztearekin.

@etakitto



etakitto.eus



#### ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

8.150 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## Eskutitzak



### Langile bat lan-istripuz hil dela-eta

Eibarko Udalaren Bozeramaileen Batzordeak honako adierazpen instituzionala onartu du atzo Eibarren izandako lan istripu baten ondorioz langile baten heriotza deitoratuz:

1. Eibarko Udalak atsekabez hartu du astelehenean Eibarren izandako lan-ezbeharraren ondorioz langile bat hil izana eta elkartasuna helarazi nahi die langilearen senideei, lankideei eta lagunei. Aldi berean publikoki salatu nahi du eta gaitzespena adierazi, heriotza eragiten duten lan-ezbeharrak direla eta.

2. Eibarko Udalak adierazi nahi du erakundeek nahiz elkarte pribatuek eskura dituzten bitarteko guztiak jarri behar dituztela lan istripuak ekiditeko, lan mota guztietan lehenetsuna behar baitu izan lan-segurtasunak.

3. Eibarko Udalak berresten du pertsonak, eta batez ere langileak, direla gure herrialdearen garapen sozial eta ekonomikoaren muina. Horregatik jotzen du ezinbestekotzat lan-osasunari eta segurtasunari buruzko kanpainak bultzatzen jarraitzea, bai eta lan-arriskuen prebentziorako arauak betearaztea ere.

Lan istripuak gure sistema ekonomiko-sozialaren egiturazko arazo bilakatu dira. Lan-arriskuen aurkako defentsarik onena prebentzioa eta prestakuntza dira, horien bidez lortzen baitute langileek ongizatea, ezagutza eta segurtasuna.

4. Horregatik guztiagatik, erakunde eta elkarte pribatu guztiei berriz ere eskatzen die lan-arriskuen prebentzioan jardunbide egokiei buruzko proiektuetan lagun dezatela, lan-administrazioarekin eta erakunde sindikal zein patronalekin koordinazioan, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren aurkako delituak jazar ditzatela, baita ikuskapen funtzioak gehitu eta hobetu ere.

5. Eibarko Udala, era berean, lan-ezbehar hauek salatu eta familiarekiko elkartasuna adierazteko ekimen guztietara atxikitzen da.

**Eibarko Udala**

## Astean esanak



Feminismoa ez da ideologia bat, zorionez. Ez da ideien sistema itxia, mundua aldatzen diharduen mugimendu kulturala eta soziala baizik. Horregatik feminismoez hitz egiten dugu, mendeetatik honaino eraikitzen ari den iraultza pluralaren emaitza direlako. Iritzi ezberdinak izatea prostituzioari edo trans-ei buruz ez du ezer txarretik. Arazoa egiaren jabe direla uste dutenek sortzen dute, feministak zeintzuk izan daitezkeen eta zeintzuk ez erabakitzeo legitimitatea dutela uste dutenek. Hori ez da feminismoa, hori dogmatismoa da.

**ROSA MONTERO, idazlea**

Armak urruti geratzen zaizkigu: orain ez dugu gurea, metal hotza da, mehatxugarria. Asko dira munduan eskuetan inoiz hartu ez dutenak; guri ere beldurra emango liguke. Baina ikusi, ikusten ditugu: eguneroko gailuak izatetik etengabeko ikuskizuna izatera pasatu dira. Serie, pelikula eta jokoetan neurritz gaineko presentzia dute, kontsumitzen ditugun fikzioetan biolentziak betetzen duen mailakoa. Ia bare dagoen munduan bizi bagara ere, turbulenziaz betetakoa ikusi, ikusten dugulako. Halako batean, fikzioa errealitate bihurtzen denean, eta armek benetan hiltzen dutenean, konturatzen gara gerrak zer diren: armek bere galdutako tokia hartzen duten esparrua.

**MARTIN CAPARROS, idazlea**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**OGEKO-ERROPA** → Oheko izarak. "Zortzixan behin aldatzen dittue ogeko-erropak".

**OGIBALTZ** → Ogi integrala. "Oin modan daguan ogi baltza, lehen derrigor jan bihar izaten zan, besterik ez zegoelako".



Idurre Iriondo

### Farmaziak

<b>BARIXAKUA 1</b>
<b>EGUNEZ   Elortza (J. Gisasola, 18)</b>
<b>ZAPATUA 2</b>
<b>EGUNEZ   Morgado (San Agustin, 3)</b>
<b>DOMEKA 3</b>
<b>EGUNEZ   Castaño (J. Etxebarria, 7)</b>
<b>ASTELEHENA 4</b>
<b>EGUNEZ   Azkue (T. Etxebarria, 4)</b>
<b>MARTITZENA 5</b>
<b>EGUNEZ   Barandela (Z. Agirre, 4)</b>
<b>EGUAZTENA 6</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri (Isasi, 31)</b>
<b>EGUENA 7</b>
<b>EGUNEZ   Azkue (T. Etxebarria, 4)</b>
<b>BARIXAKUA 8</b>
<b>EGUNEZ   Elortza (J. Gisasola, 18)</b>
<b>GAUEZ BETI, 2022an, Mendinueta (Urkizu, 6)</b>

### Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

### Hildakoak

- **Maria Iriondo Rementería.** 91 urte. 2022-03-22.
- **Ramon Euba Zarandona.** 88 urte. 2022-03-22.
- **Soledad Aguado Roman.** 59 urte. 2022-03-22.
- **Miguel Hormaetxea Mallagarai.** 87 urte. 2022-03-23.
- **Jovino Fernandez Boo.** 96 urte. 2022-03-23.
- **Alfonso Moro Mendez.** 88 urte. 2022-03-25.
- **Irene Uriarte Garai.** 88 urte. 2022-03-25.
- **Josefa Askaiturrieta Gerrikabeitia.** 86 urte. 2022-03-26.
- **Luis Angel Escolar Sagredo.** 62 urte. 2022-03-26.
- **Manuela Colmenero Barge.** 85 urte. 2022-03-26.
- **Olga Bastida Arizaga.** 83 urte. 2022-03-27.

### Jaiotakoak

- **Doneija Ahmed Salem Iahdih.** 2022-03-18.
- **Salka Ahmed Salem Iahdih.** 2022-03-18.
- **Noa Herran Pelaez.** 2022-03-18.
- **Julen Belategi Ortega.** 2022-03-19.
- **Ekain Arribas Amador.** 2022-03-20.



## Untzagatik Azitainera martxa antolatu du Ekialdea Bai elkarteak bihar eguerdirako

“No al paseo que nos entierra-Ekialdea Bai” elkarteak auzo-martxa antolatu du biharko. Martxa Untzagan hasiko da, 12:00etan, eta handik abiatuta Toribio Etxebarria, Errebal, Arragueta, Urkizuko parkea, Barakaldo, Barrena eta Azitain kaleetatik igaroko da, autopistaren sarrerara ailegatu arte. Horrela, Estaziño eta Azitain arteko trenbidea estaltzeko proiektuaren aurka daudela aldarrikatu nahi dute beste behin ere: “Ez dugu nahi bizilagun askoren ongizatea

hipotekatuko duen hormigoizko eraikin erraldoi bat eraikitzerik”. Gainera, proiektuak dirutza balio duela salatzen dute eta, adibide gisa, 2,1 kilometro dituen Azitain-Maltzaga bidegorriak 5,1 milioi euro kostatu zuela gogorarazi nahi dute: “Dirutza izan arren, trazadurak bere konplexutasuna zuela aitortzen dugu. Estaziño-Azitain pasealekuak, berriz, kilometro bakarrerako 18 milioi euroko aurrekontua du. Neurrigabekeria izugarria da”.

## AFESD elkarteari laguntzeko Zumba Maratoia egingo da bihar Astelenan

Astelena frontoiak V. Zumba Maratoi Solidarioa jasoko du bihar, 11:00etatik aurrera, AFESD diagnostikatu bariko gaixotasunak dituzten haurren elkartearen alde. Izan ere, haurren tratamendu batzuk ez ditu Gizarte Segurantzak estaltzen. Nerea Blasco eibartarra da antolatzailea eta irakasle nagusia. Blascoz gain, beste zortzi irakasle arituko dira (KAXAko Jone, Mar-

ta eta Marina; eta Esther Gonzalez, Maider Lobera, Esti Garcia, Tamara Berrocal eta Zulai Plazaola). Aurkezpen lanetan, bestetik, Esti Curiel aktoreak jardungo du eta Arno DJa arduratuko da musikaz. Ateak 10:30ean zabalduko dituzte. Sarrerak 10 euro balio du (10 urtetik beherakoek ez dute ordaindu behar) eta egunean bertan erosteko aukera dago, frontoiko leihatilan.

## Olabeke zelaian egingo diren baso-bainuetarako izena eman daiteke

Egoaizia eta Proye-Proega GKEek baso-bainuetan parte hartzerako gonbidatu nahi dituzte eibartarrak apirilaren 9an eta 10ean, 09:00etatik 11:00etara, Olabeke zelaian. Praktika hori Ibon Sarasola Monzonek, Donostiako Basona Elkarteko kideak gidatuko du. Ibon baso-bainuen gidaria da orain dela bi urte, Forest Therapy Hub delakoan, eta iaz Aldatze ikastetxeko irakasle batzuekin egin zuen bezala, aurten ere Eibarren baso-bainuak gidatzeko ardura izango du.

Izema emateko



## Skate ekitaldia egingo da zapatu goizean

Bihar goizean skate ekitaldia egingo dute Errebal Plazan, 11:00etatik 14:30era. Ipar Surf eta Skate Eskolak, Hop skate dendak, Ranpa eta Truko Skate Elkarteak, Frediy kaleko skate eszenak, Disaster skate dendak, Royo markak eta Eibarko Udalak antolatu dute saioa. Besteak beste, klaseak eskainiko dituzte bost urtetik gorakoentzat, erakustaldi irekia egingo dute, zuzeneko musika egingo da, sari-banaketa...

## AUTUAN

### ESKUALDEKO LANBIDE HEZIKETA EZAGUTZERA EMATEKO AZOKA

Abian Debabarreneko V. Lanbide Heziketa Azoka hartu zuten Ipuruia foball zelaiko instalazioek martxoaren 22tik 24ra. Azoka martxan egon zen hiru egunetan Debabarreneko Lanbide Heziketako zortzi ikastetxeek (Armeria Eskola, IMH, Meka Lanbide Eskola, Uni Eibar-Ermua, Kardala Akuakultura Eskola, Mutrikuko Institutua, Eibarko Oinarrizko LH eta Ermua-Mallabiko Oinarrizko LH) beraien eskaintza eman zuten ezagutzera.

Ikusi bideoa gure YouTube kanalean



### SORTUK EUSKARARI ARNASA EMATEKO PROPOSAMENA LANDUKO DU EGUAZTENEAN

Datorren guztagenean, Eibarko Sortuk euskara arnasberritzeko proposamen politikoa aurkeztuko du, Eibarri begirako ariketa praktikoa landuz. Arrate Kultur Elkartearen izango da, 18:30ean.



## Garraio publikoaren tarifen inguruko iritzi ezberdinak azaldu zituzten Udalbatzarrean

EAJ-PNVk Eibar barruko bidaia guztietarako prezio bakarra ezartzearen alde aurkeztutako mozioa atzera bota zuen Udalbatzak PSE eta Elkarrekin-Podemos alderdien kontrako botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin. Jon Pérez Illana EAJ-PNVko Trafiko eta Ingurumen zinegotziaren berbetan, “Lurraldebus eta Euskotren %37 garestiagoak dira Udalbusa baino, Eibar barruko bidaietan beste udalerribatuetara joateagatik kobratzen duten prezio bera kobratzen dutelako”. Bestalde, Gipuzkoako Ga-

rraio Agintaritzan tarifen jaitsiera orokorra aztertzea bultzatu zuen Bilduk bere mozioan, “egiten den bidaia edo erabiltzen den garraio-bidea edozein dela ere”. Gainera, garraio publikoa gehien erabiltzen duenari mesede egiten dion MUGI sistemaren filosofian sakonduz, beharrezkoa ikusten dute laugarren tarifa tarte bat sortzea, “deskontuak sektore gehiagotara zabaltzeko”. Garraio publikoan zerbitzu guztiak berreskuratzea eta garraio-eskaintza zabaltzea ere eskatu du EH Bilduk.

## Armeria Eskolako Elkartek urteko batzar orokorra egin du

Martxoaren 25ean egin zen Armeria Eskola Elkarteko batzarra eta, garatu dituzten proiektuak aurkeztearekin batera, hitzaldiak eta networking-erako gunea ere antolatu zituzten. Amaieran 1975ean, 1976an eta 1977an ikasketak amaitu zituztenei intsigniak banatu zizkieten.







## Lesboseko errefuxiatuei jaten emateko erronka antolatu du Zaporeak elkarteak

Zaporeak elkarteak solidaritatearen eskutik joko du berriro, Greziako errefuxiatuei jaten ematen jarraitzeko eta, aurtien ere, Lesbosera bidaltzeko produktu-bilketa kanpaina ipiniko du martxan: Eibarren pardina dilista jasoko da, Ermuan eta Deban grano biribileko arroza, Elgoibarren garbantzuko pedrosillanoa eta Mallabian eta Sorluzen hodi erako makarroiak.

Aurtengo erronka 2021ean batutakoa gainditzea da. Horregatik gonbidatzen dituzte enpresa,

ikastetxe eta bestelako elkarte eta kolektiboak apirilaren 21etik 29ra egingo den bilketa honetan parte hartzera eta horrela errefuxiatuei laguntzera.

Bestalde, apirilaren 30ean, Eibarko Erreal Plazan, 14:00etatik 15:00etara "Tuper solidarioa" izeneko ekimena egingo da: tuperraren erdiak lentejak bakailaoarekin izango du, beste erdiak arroza Lu-magorrirekin eta, fruta pieza batekin batera, 5 eurotan erosi ahal izango da, gero etxean jateko.

## Ingurumen-heziketa saio bereziak prestatu dituzte ikastetxeentzat

Debabarreneko Mankomunitateak ingurumen heziketa saioak eman izan ditu eskualdeko ikastetxeetan, eta Nazioarteko Ingurumenaren Egunaren harira (ekainak 5), ikasturtearen bigarren seihilekorako saio berezia antolatu du. Mankomunitateko ingurumen teknikiariak gidatuko du heziketa saioa eta ordubeteko iraupena izango du. Euskaraz eta gaztelaniaz izan daitezke saioa eta interesa duten ikastetxeek ingurumena@debarrena.eus helbidera idatzita jar daitezke harremanetan.



## Andretxea berria hartuko duen eraikinaren barruko lanak laster hasiko dituzte

Aurreko astean Jon Iraola alkateak eta Patricia Arrizabalaga Berdintasuneko zinegotziak prentsaurrekoan jakinarazi zutenenez, Isasi kalean Andretxeako egoitza berria hartuko duen eraikinaren barruko egokitzapen-lanak laster hasiko dira, obrak UTE Urdinberri-Viuda de Sainz sozietateari 917.437 eurotan (BEZa barne) esleitu eta gero. Lanak egiteko epea 37 astekoa izango da eta, beraz, aurreikuspenak

betez gero, Emakumearen Etxearen instalazio berriak datorren hiru hilekorako martxan jartzeko moduan izango dira.

Adierazi zutenenez, eraikinak bildu beharko dituen zerbitzuak eta espazioen banaketa definitzerako orduan Berdintasun Sailaren eta Emakumearen Mahaiaren planteamenduak kontuan hartu dira, "dagoen azalera ahalik eta gehien aprobetxatuz".





Wellk enpresa teknologiko gazteak sortu du aplikazioa.

## ‘Antxitxika Eibar’, kirol erronkak eibartarrak martxan jartzeko

Apirilaren 7rako prestatu du lehen erronka ‘Antxitxika Eibar’ egitasmoak, ‘Gure planeta, gure osasuna’ goiburuearekin. Izan ere, Osasunaren Mundu Eguna ospatuko da egun horretan. Ekintza honen bitartez herritar guztiak jarri nahi dituzte martxan, guztion arteko elkarlanak emango dituelako fruituak. Izan ere, erronkak hiru maila izango ditu eta herritar guztiak egindako kilometroen arabera mailak desblokeatu ahal izango dira.

Kirola egin eta erronka gainditzeko aukera emateaz gain, parte-hartzaileek beste sari batzuk eskuratu ahal izango dituzte. Izan ere, herriko zenbait eragilek 11 sari baino gehiago eskainiko dituzte parte-hartzaileen artean zozketatzeko.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, adibidez, Orbeak 45 artikulua eman-gu ditu zozketatzeko.

Erronka birtuala izango da eta herrian egingo diren hainbat ekintzarekin konbinatuko da. “Online eta offline-a bateratuz, mugikortasun aktiboa, jasangarritasuna eta bizimodu osasungarria sustatze aldera”, diote antolatzaileek.

### Kirola sustatzeko aplikazioa

Parte hartu ahal izateko aplikazioa deskargatu behar da, erronkan izena eman ahal izateko. Izena emanez gero, parte-hartzaileek kamiseta bat jasoko dute Ipurua edo Orbea kiroldegietako harrera lekuetan.

Wellk enpresa gazteak sortu du ‘Antxitxika Eibar’ aplikazioa. Ber-

Eibarko Udaleko Kirol Sailak eta Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza Sailak ‘Antxitxika Eibar’ egitasmoa bultzatu dute Wellk enpresa teknologiko gaztearekin elkarlanean eta BIC Gipuzkoaren laguntzarekin. Horrela, telefono mugikorretarako aplikazio baten bitartez, kirola modu pertsonalizatuan eta berritzailean egiteko tresnak emango dizkiete herritarrei. Aplikazioan herriko kirolaren inguruko informazioa egongo da eta erronkak bultzatuko dira.

tan, 30 jardueratik gora erregistratu ahal izango dira eta Apple Health, Google Fit, Fitbit eta Strava aplikazioekin bateragarria izango da, Wellk-en aplikazioko datuak beste horietara igorri ahal izango direlarik.

Plataforma berria Eibarko kirol-eragile guztiek hartuko dute parte, bai Udaleko kirol-instalazioek bai kirol-taldeen, gimnasioek edo kirolari lotutako beste erakunde batzuek. Horrela, 30 elkarte inguru izango dira guztira.

Ekimenaren antolatzaileek adierazi dutenez, plataforma hau aukera bat da kirol-klubentzat eta kirolarekin lotura duten herriko gainerako elkarteentzat. “Izan ere, taldeek euren jarduerak ezagutzera eman ahal izango dituzte eta herri kirola egitea sustatuko dute”, diotenez.

Gainera, apirilaren 7an egingo den bezala, aplikazioaren bitartez Udalak eta klubek erronka ezberdinak proposatu ahal izango dituzte, Eibarren antolatutako kirol-jarduerak gomendatzeaz gain.



# Rialtoko plazari betirako agur

Atzo goizean zabaldu zituzten azkenengoz Rialtoko merkatu plazako ateak. Aurrerantzean, baserritarrei zerbait erosi nahi dietenek Errebalen aurkituko dituzte, orain dela 15 urte derrigortuta laga behar izan zuten toki beretsuan, baina beraiek estreinatuko duten etxean. Rialtoko azoka ez ezik, orain arte bidelagun izan dituzten aterkin-saltzailea eta tabernaria agurtzeko eguna izan zen atzokoa.

**>>> Errebal  
Plazia eraikineko  
azoka berriak  
12 baserritarren  
saltokiekin eta  
arraindegi batekin  
ekingo dio bideari**

**N**ahitaezko izapide guztiak amaituta, gaur goizean goiz zabaldu dituzte merkatu plaza berriko ateak lehenengoz Errebal Plazia funtzio anitzeko eraikinean. Aurrerantzean bertan salduko dituzte beraien produktuak baserritarrek, Errebal kaletik sarrera duen azokan. Baserritar bakoitzak batetik bestera mugitzen den mahaia izango du, baserritik eramaten dituen barazki eta bestelakoak gorde eta bezeroei eskaintzeko.

Era berean, “baserritarrek egingako lana eskertzeko, eta Errebalen garatuko duten etapa berriaren hasierarekin bat”, Udalak omenaldia egin zien atzo eguerdian, udaletxeko Osoko Bilkuren Aretuan. Ekitaldian, besteak beste, Debemen Debabarreneko Landa Garapenerako Elkartearen laguntzarekin grabatutako bideoa proiektatu zuten, baserritarren lana nolakoa den erakusteko. Horrekin batera, “baserritarren

lekualdaketari nolabaiteko jaiakutsua emateko”, gaur goizean ekitaldi xume bat egin dute eta, gerturatu den jendeari, Azitaingo Oinarrizko Lanbide Heziketa Institutoko ikasleek prestatutako pintxoak eskaini dizkiete.

## **Baserritarren jarduera**

Errebal Plazako merkatu berriaren jarduera komertziala martxan jartzearekin bat, Jon Iraola alkateak adierazi du Rialtoko instalazioak ixtea eta baserritarren espazio hori zabaltzea “mugarri garrantzitsua” dela eta, horri esker, aurrera egingo duela Udalak Errebal Plazia merkataritza-jardueraren gune berri bihurtzeko duen helburuan.

Ildo horretan, Iraolak baserritarren lanaren garrantzia nabarmendu nahi izan du, “Eibarko Merkatu Plaza beti izan denaren eta hemendik aurrera Errebalgo gune berria izango denaren sinbolo baitira. Eta horregatik, me-rezi duten protagonismoa eman



Hamabost urte eta gero, Rialtoeko eraikin barruan zeuden denda guztiak desagertzen joan dira, hutsik geratu arte. SILBIA HERNANDEZ

nahi diegu, merezitako omenaldia eginez, etapa berri honen hasiera aprobetxatuta”.

Horrekin batera, Errebal Plazan baserriarren jarduerari ekiteak “merkatuko plaza dinamizatzeko behar den jende-fluxua erakartzea ahalbidetuko duela” uste du alkateak, lanpostu finkoak esleitzeko izapideekin aurrera jarraitzen duten bitartean.

Izan ere, Udalak iazko ekainean atera zituen lehiaketara Errebal Plazia azoka berriko sei saltokien kontzesio edo emakidak, baina orain arte horietako bakarra, arraindegiarena, esleitu da. Gauzak horrela, hutsik geratu diren beste bost postuak betetzea da Udalaren asmoa eta, horretarako, lehen deialdiko baldintza batzuk aldatzeko erabakia hartu zuten, bigarrenez lehiaketara atera aurretik.

Bestalde, bertako kafetegia lehenbailehen zabaldu ahal izateko lanean ari dira, obrak amaituta martxan ipintzeko asmoz.

### 15 urte Errebaletik kanpora

Behin behineko plaza izan behar zuenak azkenean 15 urte egin ditu Rialtoeko eraikinean. 2007an zabaldu zuten, Errebalgo merkatu plaza zaharretik bertara joan ziren 15 saltokirekin: bost arraindegi, harategi bat, ardoa saltzeko denda, degustazioa, izoztutako produktuak saltzeko bi denda, bi frutadenda, ozpinetakoak saltzeko denda, aterkinak saldu eta konpontzeko denda eta urdaitegi bat. Hasiera batean toki-aldaketa bi urterako izango zela esan zien Udalak; baina, Errebalen lanak behin eta berriz atzeratzen zirela ikusita, euretako askok denda merkatu plazatik kanpora zabaldu zuten eta beste batzuk, berriz, erretiroa hartu zuten, denda behinbetiko itxita.

Azkenean, Errebalgo merkatu plaza zaharretik irten ziren gutzietatik, bakarrik baserriar batzuk itzuliko dira Errebalen gaur zabaldu duten merkatu plaza berrira.

**>>> Bete barik geratu diren postu finkoak esleitzeko izapideekin aurrera jarraitzen du Udalak, horiek ere martxan ipintzeko asmoarekin**



# “Mundua aldatu egin da, ez gara aurreko egoerara itzuliko”

TXENTE REKONDO • Nazioarteko analista



Ukrainan gertatzen ari denari buruzko hitzaldia eskaini zuen eguaztenean Kultun Txente Rekondo nazioarteko analistak. Gatazkaren testuingurua aztertzeaz gain, hobeto ulertzeko zenbait gako eman zituen, mundua hankaz gora jarri duen gertakizuna hobeto ulertzeko asmoz.

**E**guazteneko saioa hasi aurretik Txente Rekondorekin egoteko aukera izan genuen galdera zehatzak egin ahal izateko. Rekondo Komunikazio Zientzietan lizentziatua da eta doktoregaia Politika Zientzietan. Zenbait liburutan, hitzalditan eta telebista saiotan pate hartu du.

## **Zeintzuk dira Ukrainaren eta Errusiaren arteko gatazka ulertzeko gako nagusiak?**

Gaiaren konplexutasunari erreparatuz, argi dago gaur egungo egoera ulertzeko gako ezberdinei begiratu behar zaiela. Batetik, gako historikoak eduki behar dira kontuan. Izan ere, Ukrainaren kokapen geopolitiko oso garrantzitsua izan da historikoki. Europa erdi-erdian dago eta historian zehar protagonismoa izan du. Poloniak eta Lituaniak osatzen zuten konfederazioaren baitan egon zen, gero tsarren sasoian Errusiaren parte izan zen eta Sobietar Batasuneko (SESB) zati bat ondoren, aurretik otomandarrak egon ziren, Austria-Hungariako inperioa ere hortik ibili zen... eta horietako bakoitzak eragina izan du. Beraz,

Ukraina eskualdeka aztertzen badugu, nahiko argazki bitxia ematen digu.

## **Nolako argazkia izango litzateke?**

Ekialdean eta hegoaldean lotura gehiago izan dute Errusiarekin (ikuspegi erlijioso, politiko eta historikotik). Ipar-mendebalean, ostera, kontrakoa. Erlijio katolikoa da nagusi (Lituaniaren eta Poloniaren eragina nabarmena delako) eta pentsamoldeak ezberdinak dira (Austria-Hungariako inperioaren eraginez). Beraz, ikusten da gako historikoak garrantzitsuak direla, gako linguistiko eta erlijiosoak ekartzen dituztelako. Ukrainar askok errusiera dute ama-hizkuntza, beste batzuek ukrainarra. Hala ere, gatazkaren une honetara iritsi baino lehen, ama-hizkuntza ezberdina izan arren, gehienek ukrainar bezala ikusten zuten euren burua. Agian salbuespena Krimea inguruan egon zitekeen, aspalditik errusiar sentitzen zirelako. Gogoratu behar da 1954an Nikita Khrustxov Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren presidenteari Ukrainari Krimea eman ziola opari gisa.

## **Zein beste gako izan behar dira kontuan?**

Sozio-ekonomikoak. Batetik, SESBren esparrua desa-



gertu zenetik, populazioaren beherakada oso nabaria izan da. Bestetik, aberastasuna (industria, gariaren ekoizpena, nekazaritza...) herrialdearen hego-ekialdean dago kokatuta. Hau da, jatorriz gehienak errusiarrak diren tokietan.

#### **Eta gako politikoak zeintzuk lirateke?**

Orain dela 30 urte SESB desagertu zen eta munduko ordena zeharo aldatu zen. Bi poloren arteko talkatik, hegemonia homogeneizante batera pasa ginen, non Amerikako Estatu Batuen (AEB) presentzia eta jarrera oso begibistakoa izan den. Horrek argi lagatzen digu nolako hartu-emanak sortu diren herrialdeen artean. Ukrainara begira jarrita, azken urteotan, SESBen desagerpenarekin batera, mugimendu garrantzitsuak egon dira. Alde batetik, NATOk Europan ekialderantz jo du, poliki-poliki eremuak bereganatuz. Bestetik, Ukrainan ikusi dugu, estatu moderno eta batua izan arren, barne-gatazkak existitzen zirela eta azken urteotan horrek lagundu du gaur egungo egoerara iristen. Ezberdintasun politiko eta ekonomikoak oso nabariak ziren, eta 2004ko Iraultza Laranjak Ukrainaren mugimendua baldintzatu zuen.

#### **Zerk piztu zituen 2014. urteko protestak?**

2013. eta 2014. urteetan Europar Batasunetik jarritako baldintzak izan ziren gakoak. Ukraina oso pragmatikoa izan da historikoki, kanpo politika multibektoriala izan du, eta horrek mendebaldearekin (Europar Batasunarekin) eta Errusiarekin akordioak lortzeko aukera ematen zion. Orduan, Europar Batasunetik baldintzak aldatu zituzten: “Edo Moskurekin edo gurekin”, aukera egiteko esan zieten. Hasieran ematen zuen Ukrainako presidentea baldintza horiek onartzeko prest zegoela, baina, ondo aztertu ondoren eta Errusiarekiko dependentzia energetikoa eta ekonomikoa kontuan hartuta, Moskurekin zituen harremani eustea erabaki zuen. Aitzakia horrekin, Ukrainako mendebaldean protestak hasi ziren, protestek estatu kolpea ekarri zuten eta gauzak konplikatatu egin ziren. Ondoren, Errusiak Krimea okupatu eta hartu zuen, Donbass eskualdean altxamendu militarra egon zen (autodefentsa ikuspegitik, eskuin muturreko miliziek demasako sarraskiak egin zituztelako, Odesan adibidez) eta guda hasi zen eskualde horretan.



**“Inork ez ditu Minskeko akordioetako betebeharrak bete eta egoera gaiztatu egin da”**

**“Ukraina eskualdeka aztertzen badugu, nahiko argazki bitxia ematen digu”**

**Zortzi urteko guda izan da eta, amaitu beharren, gaiztatu egin da. Zer gertatu da?**

Europar kokatutako guda izanik, baretzeko saiakera egin zen. Horretarako, Minskeko akordioak sinatu zituzten 2015ean Ukrainak eta Errusiak, Frantziaren eta Alemaniaren bitartekaritzarekin. Horrek irtenbide negoziatua ematen zion gatazkari, baina akordioak ez dira inplementatu. Preso eta atxilotuen askatasuna eta trukaketak eman ziren, baina Kieven aldetik akordio instituzionalak ez ziren ezarri eta oso garrantzitsuak ziren. Adibidez, Donbassentzat autonomia politiko garrantzitsua; euren hizkuntza-eskubideak, giza eskubideak eta eskubide politikoa bermatzea... jasotzen zen akordioetan, baina ez da gertatu. Alde batetik eta bestetik zein motatako Ukraina defendatzen den da gakoa. Mendebaldetik eta Kieveko gobernutik Ukraina bakarra eta homogeneizantea defendatzen da; eta Donbassen aldekoek, bestetik, Ukraina federala. Esan beharra dago Minskeko akordioetan ez zela independentzia berba aipatzen, autonomia eta eskubide politikoa baizik. Ez Europar Batasunak, ez Ukrainak, ez Errusiak ez dituzte euren betebeharrak bete eta egoera gaiztotzen joan da. Hortik beste interes batzuk sortu dira eta horrek guztiak ekarri du gatazka militar hau.

**Gatazka honetan Ukraina eta Errusia dira protagonistak, baina zeintzuk dira beste aktoreak?**

Egoera irudikatzeko, esango genuke hau mahai bat dela. Azken hilabetea baino lehen, oso nabaria zen bertan Joe Biden AEBko eta Vladimir Putin Errusiako presidentek zeudela eserita. Guda Hotza amaitu zenetik lehen aldia zen bi aktore nagusi horien artean horrelako harreman eta negoziaketa garrantzitsuak ematen zirena. Eurak mahai horretan eserita egon dira hasieratik, baina beste aktoreak non kokatzen dira? Europar Batasunak kamareroaren papera egiten du. Hau da, bi protagonisten erdian kokatzen da zerbitzen. Guda hasi aurretik zerbitzu arrunta eskainiz, baina guda hasi ondoren zerbitzari papera utzi eta AEBren jarraitzaile sutsuaren papera hartuz. Eta Ukraina non kokatzen da? Zoritxarrez, Ukraina bi aktore nagusien



menua da, haiek jango edo erabiliko duten menua. Oso larria da hori, Ukrainaren burujabetasunaz ari garelako hitz egiten.

**Eta mahai horren bueltan nor gehiago dago?**

Europatik ez zaio garrantzi gehiegirik ematen, baina hor daude Txina eta nazioarteko komunitatearen zati garrantzitsu bat. Askotan pentsatzen dugu nazioarteko komunitatea iparraldeko herrialde nagusiek, Australiak eta Zeelanda Berriak osatzen dugula, baina nazioarteko komunitatea askoz ere zabalagoa da.

**Xake partida batean gaudela dirudi. Hurrengo mugimenduak zeintzuk izango diren aurreikusi daiteke?**

Zaila da ezer aurreikustea. Eszenatoki ezberdinak topatzeko aukerak daude. Boteprontoan, askok diote “gerra labur” batean gaudela. Hau da, Errusiaren estrategia Ukrainaren ekialdean eta hegoaldean koltxoi bat sortzea dela, ez duela konfrontazio gogorrik eduki nahi eta, aipatutako guneez gain, Kiev inguratu nahi duela. Hiriburua erortzen bada, garaipen bezala hartuko dute. Gauzak horrela gertatzen badira, negoziaketetarako eta diplomaziarako beste ate batzuk irekiko dira, gaur egun zoritxarrez itxita daudela diruditenak. Beste eszenatoki bat “gerra luzea” izan daiteke, baina hori ez zaio inori interesatzen; ez errusiarrei, ez ukrainarrei, ez Europa mendebaldekoiei. Europa mendebaldean zigor ekonomikoen, boikotaren eta gudaren ondorioak igartzen ari gara dagoeneko eta, hau luzatzen bada, eszenatoki hori oso gogorra izango da guztiontzat. Eta ez hori bakarrik, hirugarren eszenatoki bat ireki daitekeelako: guda Europan zehar hedatzea. Bertan daudenek duten ahalmen militarra ikusita, eszenatoki horrek demaseko beldurra ematen dit.

**Nola ekidin daiteke hori?**

Irtenbide diplomatikoak bultzatu behar dira eta, horren bitartez, akordio batera iritsi. Baina akordioak bete egin behar dira. Mundua aldatu egin da, ez gara aurreko egoerara itzuliko. Errusiak munduarekin izango duen harremana bestelakoa izango da eta, segurtasunari dagokionez, Europaren jarrerak eraldatu egingo dira.



**“Gerra luzea inori ez zaio interesatzen; ez errusiarrei, ez ukrainarrei, ez Europa mendebaldekoiei”**

**“Mahai honetan AEB eta Errusia daude jarrita, Europar Batasuna zerbitzaria da eta Ukraina menua”**

JULIAN ERASO • OCETAko presidentea

# “Zaletuak? Egunez errepidean eta gauez telebista aurrean”

Euskadi Txirrindularitza Antolakuntzak (OCETA) taldeko presidentea itxaropentsu dago apirilaren 4tik 9ra jokatu den Itzulia Basque Country-aren edizio berriaren aurrean. Pandemiaren ingurukoak ahazten joateko gogoz eta normaltasunean murgiltzeko irrikitan.



## Aurtengo edizioan neurri bereziekin jarraituko duzue?

Nahiko genuke Covid-arena ahazten joatea, baina zalantzekin jarraitzen dugu. Antolatzaile eta zaleen arteko harremana errazagoa izango bada ere, txirrindulariekin ez da horrelakorik izango, horko burbuilari eutsiko diogulako. Giroan eta Tourrean egoera hobetzen joango dela uste dut. Baina aurten ez dugu zaletua errepidetik botako. Etxetik ikustea ondo dago, baina mendie-

tan eta kaleetan zaletuekin kontatzea garrantzitsua da guztiontzako. Ongietorriak izango dira.

## Non jokatu da aurtengo Itzulia? Badira aldaketak?

Ibilbideak 100 kilometro gehiago izango ditu, batez ere Nafarroako etapa luzeagoa delako. Etapa guztiek dute beren tranpatxoa, lehia nahi izaten dugulako. Bat aipatzekotan, hirugarrena gorabeheratsua da eta izango du zer erabaki. Cesar Solaunek prestatu du, Laisekarekin

batera, eta hor aurrean ez dagoenak ez du Itzulia irabaziko. Arra-teko azken etapa, jakina, inoiz ezin dugu ahaztu.

## Erlojupekoa hasieran hobe?

Horren aldekoa naiz, beti ere motza baldin bada. Amaieran ipiniz gero, horren zain izaten dira batzuk. Horrela, lasterketa irekiagoa eta polita-goa izan daiteke.

## Hurrengo urteetako zenbateraino duzue lotuta? Eibarrek protagonismoa izaten jarraituko du?

Eskaera asko ditugu, deskarteak egitera behartzeraino. 2026ra arte behintzat soberan ditugu irteera eta helmuga izan nahi dutenak, udal korporazio asko txirrindularitza gogoko dutelako. Eibarri, bestalde, eskerrak ematea besterik ez dagokigu, beti izan duelako aldeko jarrera. Gustatuko litzazuke lasterketa herriaren erdian amaitu eta omenaldia egitea bertako zaletuei.

## Zenbatekoa da aurtengo aurrekontua?

Itzuliaren etapa garestienak irteerakoa eta amaierakoa izaten dira. 1.200.000 euroren bueltan ibiliko gara. Horri gehitu behar zaizkio maiatzerako antolatuko dugun emakumezkoen mailako hiru eguneko itzulia, 500.000 eurotik gorakoa, eta uztailaren azken astean egingo dugun Donostiako Klasikoa, hori ere milioi erdiren bueltakoa. Ezin da ukatu oso ausartak gara: estatuan antolatzen diren World Tour mailako sei probetatik, hiru gureak dira.

## Aurten baduzue omenaldirik edo antzekorik egiteko asmorik?

Iazkoan Juan Luis Atxa omendu genuen bezala, beti izaten ditugu halakoak kontuan... baina herriaren erdian egitea nahiko genuke. Sentsibilitate soziala ere agertu nahi dugu eta Ukrainako gerraren aurkako jarrera azalduko dugu sinadura kontrolerako kamioian.



## Asteburuan atleta gazteenen Gipuzkoako txapelketa jokatu da Unben

Alebin eta infantil mailetako probintziako txapelketa hori hiru pistetan jokatu da eta Unbeko domekako jardunaldi horietako lehenengoa izango da; beste biak Irunen (apirilaren 10ean) eta Arrasaten (maiatzaren 1ean) jokatu dira. Unbeko probak honakoak izango dira: infantiletan, jauzi hirukoitza, pertiga, xabalina eta 150 eta 3.000 metroak; alebinetan, aldiz, altuera, pisua, 150 metro hesiak

eta 150 eta 2.000 metroak. Aukera polita, beraz, atletismo zaleentzat.

Bestalde, kros denboraldia amaitzeko Zumarragako proban Eibarko Klub Deportiboko bost alebin izan ziren parte hartzen. Mutiletan Ander Azurmendi eta Marko Malaga laugarren eta bosgarren sailkatu ziren, hurrenez hurren. Nesketan, Maialen Zenarruzabeitia (11.), Haizea Magunazelaia (12.) eta Martina Egaña (19.) hartu zuten parte.

## Eibartarrak maila onean Durangoko duatloian

Lau izan ziren gure herriko ordezkariak Durangon jokatuako euskal duatloi zirkuitoko proban. Pablo Zabala izan zen Eibarko onena, berderatzigarren postuan helmugaratuz, irabazlearengandik minutu bat baino gutxiagora. Ander Ordoño eta Roberto Gartzia ere aurrean sailkatu ziren, 35. eta 38. postuetan, eta emaitza horiekin taldekako zazpigarren tokia lortu zuten; gainera, bere mailako onena izanda, Roberto Gartziak podiumera igo zuen. Emakumezkoetan, Maialen Zubizarretak ere bikain jardun zuen, 18. postuan helmugaratzeko.



2. Mailako taldeak lidergoa sendotu du.

## Puntu garrantzitsuak etxean jokatu duten foballeko lehen bi taldeentzat

Iberdrola Ligan jokatzeko duen emakumezkoen taldeak Alaves hartuko du Unben domeka goizean (11:30), jaitsiera postuetatik ihes egiteko hain beharrezkoak dituen puntuen bila. 2. Mailako gizezkoen taldeak, bere aldetik, Mirandes hartuko du etzi arratsaldean (18:15), gaur egungo lidergoa sendotu eta, bide batez, lehen postuetako bi segur-tatzen joateko asmoz.

Taldekako bestelako kirol modalitateei dagokienez, eskubaloiko bi

lehen taldeek zapatuan jokatu dute: 1. Nazional Mailako gizezkoenak Beti Onak taldea bisitatuko du 17:00etan eta, bestalde, emakumezkoenak Lema Askartza hartuko du Ipuruan (18:30). Errugbiko Ohorezko B Mailako Eibar Rugbyk Hernani liderraren zelaian partidu zaila izango du etzi (12:00etan). Saskibaloiko Avia Eibarrek Deban jokatu du bihar (18:00) eta waterpoloko Urbatek Claret Askartza hartuko du Orbean.





## Pilota Egokituaren finalak hartuko ditu Astelena frontoiak domeka eguerdian

Eguerdiko 12:00etan hasiko den jaialdian Pilota Egokitua Sari Nagusia izango da jokoan, bi mailatan. Adimen urritasuna duten pilotarien arteko finalean, modalitate horretan erreferentea den Errenteria-ko Mindara elkarteko bi bikotek neurtuko dituzte indarrak: Lorea Iribar eta Eneko Sagarmendi Sheila Cueto eta Iraitz Huegunen aurka. Urritasun fisikoa duten pilotarien artean, berriz, German Elkoro eta Beñat Lizaso izango dira batetik eta Yan Meunier eta Maixi Cabanne

baionarrak bestetik. Lizaso oiar-tzuarraren bosgarren finala izango da: oraingoz bi txapel irabazi ditu.

Jaialdia martitzenean aurkeztu zuten, Xabier Euzkitze txapelketako enbaxadorea tartean zela, bestelako agintari eta antolatzaileekin batera. Euskal Pilota Egokituaren abentura 2018an hasi zuten eta urrats sendoak ematen ari den seinale aurtengo parte-hartzea izan da, guztira 36 pilotarik hartu dutelako parte. Jaialdia ETB-1 en eta eitb.eus atarian ikusi ahal izango da.

## Iñaki Gojenola bigarren izan zen San Miguelen

Eibarko bolatokiko ordezkariak bost txirlo bota zituen Elgoibar-ko San Miguelen jokaturako 51. Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketaren lehenengo jardunaldian, eta bertako Unai Loiolarengandik txirlo bakarrera geratu zen, bigarren postuan. Euren atzetik sailkatu ziren Fidel Madariaga elgetarra eta Garikoitz Rodriguez eibartarra, biak ere lau txirlorekin. Guztira 66 bolarik hartu zuten parte tiraldi horretan. Bigarren jardunaldia Azpeitiko Garmendipen jokaturako da bihar, 17:00etatik aurrera.



## Kataluniara bost eguneko txangoa antolatu dute Deporren Aste Santurako

Urterokoari jarraituz, apirilaren 14tik 18ra Kataluniako La Vall de Lorderako irteera antolatu du Deporrek mendibatzordeak. San Martin de la Val d'Onsera, Serra d'Ensija, Santuari de Lord, La Serra del Vert eta Capolatell mendiak igotzea aurreikusitako antolatzaileek; lo egiteko, bestalde, Sant Llorent de Morunys kokatzen den Torre del Baró ostataua aukeratu dute. Izen-ematea

zabalik dago eta interesatuek informazio gehiago martitzen eta eguenean (19:30-20:30) jaso dezakete edo 943 201904 zenbakian.

Udaberriko lehenengo irteera bihar egingo dute Deporrek, Deba Bailararen 6. etaparekin, Arlaban mendatean hasi eta Elgean amaituko duten ibilaldiarekin: guztira 16 kilometro osatuko dituzte, 4-5 orduko ibilbide erosoan. Azken



irteeran Arantzazutik Leintz Gatzagara joan ziren mendizaleak, tartean Andartora igo (argazkian) eta Degurixa harana gurutzatuz.

EZTEIAK eta JAUNARTZEAK



JOSU TORREALDAY

# GEHIGARRIA

43. zenbakia. 2022ko UDABERRIA



## Nolakoak izango dira 2022ko EZKONTZAK?



Lekua, look-ak, oturuntza edo banketea, dekorazioa... Denak lagunduko du zuen ezkontza berezia izan dadin. Gainera, aparteko berezitasun eta izaera dosi bat gehitu nahi badiozue, kontuan hartu ondorengo ideia eta tendentzia hauek.



### Etiketa modernoko eta luxu lasaiko ezkontzak

Naturaltasunak joera izaten jarraituko du 2022ko ezkontzetan. Izan ere, estilo espontaneoagoan eta dibertigarriagoan -koktel erako oturuntzekin, food trucks partyekin, corner tematiko desberdinekin... -, aire zabaleko ezkontza-hitzorduak ikusiko dira, maite ditugunekin batera maitasuna ospatzeko. Naturaltasuna jaun eta jabe izango da tradizionalki formaltasunez beteta egon diren luxuzko ezkontzetan ere. Era berean, ezkontza-protokolorik txikiena ezkontza-gonbidapenetan ere nabarrituko da: idazketa informala izango da, eta testuetan gonbidatuekiko hurbiltasuna nabarmenduko da.



JOSU TORREALDAY





JOSU TORREALDAY

## Tokiko hornitzaileak

Ezkontzaren hornitzaileak kontratatzerakoan, 2022ko bikoteek herriko enpresak sustatu eta babestuko dituzte. Helburua da gure kultura eta ohiturek ezkontza egunean lekua izatea eta, bide batez, guztiontzat etorkizun hobea izaten laguntzea.

## Esperientzia gisako ezkontza-opariak

Eguneko protagonistei dirua oparitzeko egungo modak indarrean jarraituko duen arren, egia esan, opari asko esperientzia gisakoak izango dira, esate baterako, globo-bidaia, parapente saioak, masajeak edo ihesaldi espres bat.

## Gonbidatuek ere paper garrantzitsua izango dute

Maite ditugunak mimatzea eta etxean sentiaraztea bezalako detaileek indarra izango dute 2022an. Horrek ez du esan nahi gastu ekonomiko handiagoa egin behar denik; keinu errazekin lor daiteke hori, adibidez, ezkontza zirkularreko zeremonia bat eginez edo haurtzaroko gozoki gogokoekin gurditxo bat jarritz. Konponbide sinpleak eta eraginkorrak!

## Ezkontza teknologikoagoak

Aspaldi iritsi zen teknologia ezkontzen unibertsoa, bertan geratzeko. Eta, denboraldi honetan, baliabide hori ezkontzaren zerbitzura jartzen da erabat; geroz eta gehiago dira streaming-a eskaintzen duten enpresak, eta QR kode pertsonalizatuak erabiltzen dituzten bikote-kopuruak ere gora egin du (ezkontzako paper-dendan batez ere: ezkontzako gonbidapenak,





JOSU TORREALDAY

eztei-menua..., baina baita photcallerako ideiekin ere, adibidez). Eta gero eta ezagunagoa da ezkontzako webgunearen erabilera, ezkontza-egunari buruzko informazioa partekatzeko eta bertaratzea jakinarazteko.

### Landa-zertzeladak dituzten ezkontzak

Eguneko eta aire zabaleko ezkontzak 2022an tendentzia izango dira. Ekitaldi horietan, landa-, baso- eta lorategi-izaerak hartuko du protagonismo osoa. Horrela, cottagerecore estetika duten dekorazioak nagusituko dira, xarmaz betetako landa-xehetasunekin eta vintage muntaiekin. Landa-esentzia duten lore-konponketak, belusezko eserlekuak dituzten instalazioak, urrezko apaingarriak, artisau-azentuarekin neurrira egindako estilismoak eta zeremonietako arkuen zati izango diren zuhaitzak ikusiko dira.

### Ezkontzetarako loreak: zainduak, lehorrak edo sasoikoak

Gaur egun, planeta ahalik eta gehien zaintzen eta hondakinak minimizatzen saiatzen dira ezkon-gaiak. Ezkontza egunean ere bai, nola ez! Horregatik, 2022an, mahai-zentroak, emaztegai-sortak, aldareak eta egun handiaren txokoak lore lehorrez, lore babestuz eta sasoi-ko lorez apainduko dira, ahalik eta jasangarrienak izaten saiatuz.







# BELAUSTEGI

— BASERRIA —

ZURE EZKONTZA  
ZURE NEURRIRA!





**Gerritek**  
INFORMATIKA

info@gerritek.net www.gerritek.net  
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

**Marka guztietako zerbitzu tekniko eta salmenta**

**Neurrira egindako software-aren garapena**

### Sukalde eko-friendly bat

Lehen esan dugun bezala, ezkongaiak geroz eta kontzientziario handiagoa erakusten dute ingurumena zaintzerako orduan. 2022an gehien hautatuko den sukaldaritza motan ere ikusten da hori, esentzia eco-friendly-koa izango baita, lokala eta hurbileko elikagaiekin, 0 kilometrokoa, eta aukera begetariano, begano eta alternatiboekin intolerantzia mota guztietarako.



### Ezkontza look klasikoak vs. erlaxatuak emaztegaientzat

Mahuka luzeak, lepo altuak, farfailak, kortseak eta gona mardulak dituen viktoriar estiloa nagusituko da 2022ko emaztegaiei soinekoetan. Hala ere, diseinu minimalistagoak, arinagoak eta estilo lasaiegokoak ere izango dira neska-lagun xume eta abangoardistentzat. Koloreari dagokionez, zuriak eztei-estilismoen tonalitate izarra izaten jarraituko du. Hala ere, zuri mota desberdinak gehituko zaizkio – artile-kolorea, perla, marfila... – kasu bakoitzean ondoen egokitzen dena aukeratzeko. Diseinuen eta osagarrien zati desberdinetako kolore-notei uko egin gabe, jakina.

### Orrazkera fresko eta naturalak

Zalantzarik gabe, norbera izatea da premisa nagusia ezkontzako orrazkera aukeratzeko orduan. "Ez dago balio duen orrazkera-joerarik, emaztegaia eroso eta identifikatuta sentitzeko orrazkera-joera baizik", diote adituek. Ixura fresko eta naturala duten orrazkerak izango dira gehien eskatuko direnak. Erromantikoak, moldakorak, originalak eta erosoak, txirikordak edo trentzak izango dira 2022ko neskalagunen gogokoenak. Eta kontuan izan, bestalde, uhinak bertsio guztietan eramaten direla. Motots altu eta baxuak, ere puri-purian daude, itxuraz deseginak eta ile-sorta solteak dituztenak.



# JAUNARTZEA

## prestatzeko 8 pauso

Jaunartzeak ohiko datetan ospatuko dira berriz ere eta, haur baten eta bere gurasoen bizitzan gehien gogoratzen eta espero den gertaeretakoa bat izanik, prestaketa lanak garrantzitsuak dira.

Lasai, zortzi pauso sinpletan ekitaldi berezia nola prestatu lagunduko dizugu eta:

1- Data eta tokia aukeratu. Orokorrean, parrokiak berak zehazten ditu jaunartzearen data eta tokia. Beraz, zentzu horretan ez dago estuasun handirik.

2- Aurrekontua. Puntu garrantzitsua da hau. Ospakizunean parte hartuko duten elementuen kostua kalkulatu eta, zure egoera ekonomikoa kontuan hartuta, pentsatuta duzun aurrekontuarekin bat egiten duen edo ez ikusi behar duzu.



DAINA



DAINA

3- Ospakizunerako tokia pentsatu. Zuen gustuak, joango den jende kopurua eta aurrekontua kontuan izan behar duzu tokia erabakitzeko orduan. Jatetxe bat, norberaren etxea edo elkarte gastronomikoa izan daitezke aukerak.

4- Jendea gonbidatu. Aurrekontua eta tokia kontuan hartuta, familia eta lagunak gonbidatu. Zuzenean esan diezaiekezu edo, bestela, gaur egun normala da WhatsApp bitartez abisatzea edo deitzea.

5- Jantziak edo soinekoak aukeratu. Berebiziko puntua da eta, agian, erabakitzen zailena. Zorionez, gaur egun umeen gustuetara egokitzen diren aukera ezberdinak ditugu.

6- Oroigarriak prestatu. Oroigarriak gonbidatuei ematen zaizkie eta, normalean, umeek zuzenean ematen dituzte. Txarteltxoak eman ohi dira, baina badaude beste formatu batzuk: argazkien markoak, figuratxoak, giltzatak...

7- Dekorazioa eta entretenimendua. Ospakizuna egiten den tokian egiten dela, ondo legoke norberaren gustura dekoratzea puxikekin, lorekin, argi berezietekin... Bestetik, umeak protagonista izango direnez, jolasak, magia ikuskizunak edo bestelako ekintzak prestatu daitezke.

8- Argazkiak eta bideoak. Egun berezia betikotzeko ezinbestekoa da argazkiak eta bideoak egitea. Horretarako, lan hori goi-mailako zerbitzua eskainiko duten profesionalak egitea da egokiena.



# ROCA

CALBETON, 16      TEL. 943 20 80 06  
 -LEBA-  
**Ezkontza eta egun berezietan ZUREKIN!!**



JULEN LETURIONDO • Musikaria

# “Gazteok gauzak egiten ditugula erakutsi nahi dugu”

21 urterekin, Julenek ibilbide luzea egin du musikagintzan, eta oraingoan bere proposamen artistiko pertsonalena dakarkigu, zenbait diziplina artistiko uztartu nahian (musika, diseinua, argazkigintza, bideo gintza...). Datorren asteko egunean, apirilak 7, kontzertua eskainiko du Coliseoan, 19:30etik aurrera. Sarrerak Kutxabank bitartez eskura daitezke.

Testua  
ANA AIZPURUA  
Bideoa  
AIZP  
YANIRE SAGREDO

**H**ainbat musika taldetan eta saltsa desberdinetan ibili ondoren, orain dela bi urte ekin zion Julenek bere proiektu pertsonalari, ausardia eta ilusio haundiz. Orain arte egindakoaz eta proiektu berriei buruz hitz egiteko bildu Eibarko gaztearekin.

## **Txikitatik musika eta arte eszenikoekin lotutako saltsa askotan ibilitakoa zara. Zer gertatu da proiektu pertsonalarekin hasi zinenetik?**

Proiektua, berez, orain dela bi urte hasi zen, Untzaga plazan kontzertu bat egiteko eskaintza egin zidatelako. Ordura arte bakarrik ibiltzen nintzen, painoarekin edo gitarrarekin, baina momentu hartan pentsatu nuen banda batek nire proiektua oso ondo jantziko zuela. Kontzertu horretarako entseguak egiten hasi ginen. Momentu berezia izan zen, 2020ko ekaina, pandemiaren une latzenetatik irten berriak ginenean. Publikoarentzat ere apartekoa izan zen. Aukera polita izan genuen, pasada bat, eta ez dut inoiz ahaztuko. Entseatzan jarraitu genuen, baina kanpora joan behar izan nintzen, ikasketak zirela eta. Bueltan, 2021ean, oso indartsu bueltatu ginen, eta hainbat kontzertu egin genituen. Gaztea Maketa Lehiaketara aurkeztu ginen eta finalerako hautatuak izan ginen. Ate joka ibili ginen. Esan daiteke, beraz, azkenaldian prestaketa prozesu batean ibili garela.

## **Banda aipatu duzu: Asier Cascan (gitarra), Eñaut Armentia (baxu elektrikoa) eta Josu Cascan (perkusioa) dituzu taldekide.**

Batzuk lagunak ziren eta beste batzuk beste taldeetan jotzen ezagutu nituen. Musikari moduan ez ezik pertsona moduan ere elkar ezagutzeko prozesua izan da. Ordu asko izan dira elkarrekin eta nabaritzen da. Kantua partitura bat jotzea baino gehiago da, kantu bakoitzaren atzean energia berezi bat sortzen da eta hori orduak eta orduak partekatuz lortzen da.

## **Datorren astean "Ixilduak" kantua eta bideoklipa aurkeztuko dituzu Coliseoan...**

"Ixilduak" 2020ko otsailean grabatu genuen estudioan. Pandemia etorri zen eta hor geratu zen. Kontzertuetan jotzen dugu, beti azken kantua izaten da, eta argitaratzeko pausoa emateko unea iritsi da. Nire burua prest dago abesti hau publikatzeko eta ezagutzera emateko. Oso bideo txukuna egin dugu klaseko lagunaren artean; lan izugarria egin da eta kriston aukera izan da guretzako, azken batean hori ikasten ari garelako. **Nola bururatu zitzaizun aurkezpen-ekitaldia egitea? Ez da oso ohikoa izaten, ezta?**

Zeozer berezia egin nahi genuen eta talde tekniko horren ideia izan zen premier moduko bat egitea. Pelikulekin estreinaldiak egiten badira, zergatik





"Coliseoko ikuskizunean ***Ixilduak*** kantua eta bideoklipa primizian entzuteko eta ikusteko aukera egongo da"



Klaseko lagunekin egin du bideoklipa Julenek eta Coliseoan primizian ikusteko aukera izango dugu apirilaren 7ko kontzertuan.

ez bideoklipekin? Badakit ez dela gauza bera, baina bideoklipak ere, beste era batean, lan handia dauka. Beraz, bideoklipa primizian ikusteko aukera izango da datorren egunen, eta kantua ordu batzuk geroago argitaratuko da, gauerdian. Beraz, Coliseoko ikuskizuna bada aukera bat kantua eta bideoklipa primizian entzuteko eta ikusteko.

**Askok aurreratu ezin baduzu ere, zerbait desberdina ikusiko dugula esan daiteke, ezta?**

Ohiko kontzertu formatutik aldentzeko da. Saiatu gara kontzertu estandarretatik urruntzen. Niri, behintzat, horrelako gauzak ikustea asko gustatzen zait, eta prestatu dudana izan da niri ikustea gustatuko litzaidakeena. Lan baten atzean zer dagoen erakutsiko dugu: bide kronologiko bat izango da, kantua ideia jario zenetik gauregunera arte. "Ixilduak" publikoki aurkeztea eta argitaratzea libe-

**"Kantu bakoitzaren atzean energia berezi bat sortzen da eta hori taldekideekin orduak eta orduak partekatuz lortzen da"**

razio moduko bat da. Nahi dugu jendeak ikustea gazteok ere saiatzen garela eta gauzak egiten ditugula. Bide honetan lagundu didaten guztiak ere hor egongo dira, eta euren momentua izango dute. Orain arte ez dugu horrelakorik egin, dena da askoz ere profesionalagoa eta jendea ondo pasatzea nahi dugu. Eibartarrak etortzera animatu nahiko nituzke. Berezia izango da.

**Aurten "Kutxa Kultur Musika" programarako aukeratu zaitue. Egondaldi artistikoak egiteko egitasmoa da, eta**



"Ixilduak" inflexio puntu bat da Julenen ibilbide artistikoan. MAITANE CAMPOS

## "Ixilduak publikoki aurkeztea eta publikatzea liberazio moduko bat da"

**beste sei artista gazterekin diharduzu. Profesionalizazio-prozesuan laguntzea da helburua. Baliagarria suertatzen ari zaizu?**

Eurek esaten dute erresidentzia bat dela. Baina horrek ez du esan nahi bertan bizi naizenik (jajaja). Beka moduko bat da. Urtebeteko iraupena du eta lehen hiru hilabeteetan hainbat Masterklass egin ditugu gai desberdinetan adituak diren pertsonekin (diskografiketakoak, zigiluetakoak...). Ez nekien ezer industria kultural eta kreatiboari buruz, eta oso aukera ona da musikari moduan ezagutzen ez ditugun gauza asko eta asko ikasteko. Guk musika egiten dugu, baina egitasmo horri esker, administratiboki

gauzak nola egin daitezkeen ikasten dugu: tramiteak, eskubideak, legeak, promozioak zelan egin, prentsa-oharrak... Gainera, proiektuan parte hartzeagatik KatapulkaTourren sartzen gara: Gipuzkoako Foru Aldundiak tour moduko bat antolatzen du probintziatik, kontzertuak edo antzerki emanaldiekin, eta hor izango gara. Bestalde, iaz batzuk Jazzaldian hartu zuten parte eta aurten ere asmo hori dago. Pentsa zelako aukera polita izan daitekeen Jazzaldian egotea!

**Pozik, beraz, zure ibilbide musikalean ikasten jarraitzeko daukazu aukeragatik.**

Oso pozik. Beti gaude ikasten, etengabe, egunero, baita musikari bezala ere. Baina batez ere nire proiektuan sinetsi dutela ikustea, hau da, talentudun hainbeste jenderen artean aukeratua izatea niretzako kristona izan da. Autoestimua igotzeko balio izan dit.





**Begoña Zaldibar Oianguren (14-7-1927) Andoni anaiarekin batera joan zen Ingalaterrara. EGO IBARRA-GERRAKO UMEAK**

Southamptoneko kanpamentura iritsi zirenean anaia eta lehengusu bat ez zituen berriro ikusi. Southamptonetik kolegio batera eraman zuten. Begoña Londresera eraman zuten eta anaia eta lehengusua Liverpoolera.

## Bera Londresera eta anaia Liverpoolera

**Begoña Zaldibar Oianguren**  
(1926 – 2016)



Otxandion jaio arren, Bilbon bizi izan zen. Gerra Zibilean, Ingalaterrara La Habana barkuan ihes egin zuten umeetako bat izan zen. Southamptoneko kanpalekuan eta Madres Misioneras del Sagrado Corazón de Jesús eskolan egon zen. 1938an itzuli zen handik eta 1948an Eibarrera etorri zen bizitzera, aita eta anaia Star fabrikari baitzebiltzan lanean.

**Begoña Zaldibari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa**

Tiendas de campaña, pero bien, eh! Bien aseados y bien bien, médicos y de todo. Ez dakit zenbat izango giñen, gu ya bagiñen lau. Gero nere lehengusua eta nere anaia apartau egin ebezen eta gehiago ez genduzen ikusi. [Han, kanpamenduan?] Kanpamendutik eruan ebezen beste kolegixoa batera eta ez genduzen ikusi, urrin. Yo estuve en Londres y ellos estuvieron en Liverpool. La cosa es que no nos vimos. Eta nere lehengusua zeozer nagusixagua zan eta... aquel nos escribía. Ta gurasuai, nik, como que estábamos juntos, pero yo no le había visto a mi hermano...

# Astelehenetik aurrera errenta aitortpena egiteko aukera egongo da



Gipuzkoarrek Ogasunarekin zita dugu astelehenetik aurrera. Dagoeneko herritar batzuek jaso dute autolikidazio proposamena eta hilaren 4tik aurrera onartu beharko dute. Beste batzuek, berriz, egun batzuk gehiago itxaron beharko dituzte aitortpenak Internet bidez edo aurrez aurre egiteko. Denek izango dute, ostera, aukera bera: errenta aitortpena euskaraz egitea.

**A**zken urteotan errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina jarri du martxan Eibarren Akebaik eta aurren ere, 'Errenta aitortpena? Aurten ere, duda barik, Euskaraz!' goiburuarekin, errenta aitortpena euskaraz egiteko gonbita egiten die herritarrei, Eibarko Udalaren babesarekin.

Akebaik abiatutako kanpainak emaitzak eman ditu eta, datuek diotenaren arabera, poliki-poliki gero eta jende gehiagok egin du errenta kanpaina euskaraz. Adibidez, 2017ko kanpainan, Eibarren, 14.195etik 1.280 aitortpen egin ziren euskaraz (%9); 2018koan, 14.234tik 1.402 euskaraz (%10); 2019koan, 14.156tik 1.441 euskaraz (%10); 2020koan (iaz), 14.035tik 1.494 (%11) eibartarrek egin zuten aitortpena euskaraz.

Aurten 2021. urteari dagokion errenta aitortpena egingo da eta, kanpainari begira, erronka berria proposatu diete herritarrei: 1.500eko langa gainditzea.

## Euskaraz egin nahi dut, baina nola?

Akebaik botatako erronka gainditzeko, errenta aitortpena euskaraz nola egin azaldu behar da. Izan ere, zenbait modu daude aitortpena egiteko orduan aukeratutako hizkuntza euskara izatea erabakitzeke. Batetik, autolikidazio proposamena onartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula. Bigarrenik, aitortpena modu mekanizatuan egiteko, ordua hartzerakoan, euskaraz egin nahi duzula esan eta, aitortpena egiterakoan, berdin. Hirugarrenik, Internet bidez egitean, errenta aitortpenaren programaren euskarazko bertsioa deskargatu eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara aukeratu. Eta laugarrenik, aitortpena egiteko orduan aholkularitza zerbitzua kontratatuz gero, euskaraz egin nahi duzula adierazi.

Ikusten den bezala, oso erraza da errenta aitortpena euskaraz egitea erabakitzea. Alde horretatik arazorik ez, baina batzuek pentsa dezakete gaztelarazko terminoak erabiltzera ohituta egonik, arazoak izan ditza-



*Errenta aitortzena?*  
*Aurten ere,*  
*duda barik,*  
**EUSKARAZ!!!**

ketela aitortzena euskaraz egiteko. Horrela bada, ez estutu, Akebaik errenta aitortzenaren hiztegia jarri baitu bere webgunean (akebai.eus) eta termino garrantzitsuen itzulpena zein den ikusi ahal izango da bertan.

### **2023an, 100.000 euskaraz**

Eibarren Akebaik egin bezala, Gipuzkoan Foru Ogasunak errenta aitortzena euskaraz egiteko kanpaina jarri du abian. 2020an Gipuzkoan 80.519 lagunek egin zuten aitortzena euskaraz eta 2021an 83.100 herritarrek. Beraz, urtebetean ia 3.000 lagun gehiagok egin zuten euskararen aldeko aukera eta 2023. urtera begira ezarritako erronkatik hurbilago gaude. Izan ere, datorren urtean 100.000 lagunek aitortzena euskaraz egiteko erronka bota du Ogasunak.

Gipuzkoako Foru Ogasunak, zerbitzu publikoak kalitatez eman nahian, herritarrek aukeratutako hizkuntzan eman nahi dute arreta. Horregatik, Ogasunarekin euskaraz egiteko gonbita egiten diete euskal-

dunei, harremana Internet bitartez egin edo aurrez aurre egin.

Harremana Internetez eginez gero, pertsona bakoitzak bere datuak aldatu beharko ditu Gipuzkoatariaren webgunean eta euskara aukeratu behar da harremanetarako hizkuntza bezala. Bestetik, aurrez aurre egiterakoan, herritarren arretarako bulegoetan edo Aldundiko erregistro zentrallean 030 erredua aurkeztu behar da partikularren kasuan, eta 036 erredua enpresen kasuan.

### **Gidak eta bideoak**

Errenta aitortzena egiteko zalantzak izanez gero, Foru Ogasunak zenbait gida eta bideo jarri ditu herritarren eskura bere webgunean ([www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/errenta/kanpaina-sarrera](http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/errenta/kanpaina-sarrera)). Adibidez, autolikidazio proposamena jaso baduzu, nola jokatu behar duzun jakiteko bideoa aurkitu dezakezu; eta Internet bidez egin nahi izanez gero, ZergaBidea plataforma nola erabili ikusi daiteke, ziurtagiriak eduki edo ez, besteak beste.

**Aurtengo kanpaina  
 1.500 eibartarrek  
 errenta aitortzena  
 euskaraz egitea lortu  
 nahi da**

**Poliki-poliki gero eta  
 jende gehiagok egin  
 du errenta kanpaina  
 euskaraz**



## ...eta kitto!-ren irudi berria aurkeztu dugu

Aurreko astean, eguenean aurkeztu genituen ...eta kitto! Euskara Elkartearen irudi korporatibo berria eta astekariaren itxura aldaketa. "Gertuko elkarte izanik, moderno ere izan nahi dugu, berritzailea, profesionala eta lehiakorra... eta hori guztia barrura begira ez ezik, kanporantz ere islatu nahi izan dugu irudi aldaketa honekin. Urte hau aldaketaz betetako urtea izango delako; eta estrategikoa, bere zentzurik zabalenean". Olatz Oñederra da irudi berriaren egilea, "aurrekoaren esentzia galdu barik eta hiru puntuekin jarraituz, irudi gaurkotu eta biziagoa" bilatu nahi izan duena.

Ekitaldi osoa gure YouTube kanalean ikusgai:



## Itziar Laspiur gogoratu nahi izan dute 22. Korrikan

Otsailaren 7an hil zen Itziar Laspiur Zabala Eibarko irakasle historikoa gogoratu nahi izan dute gaur AEK euskaltegikoek, 22. Korrikan: "Berarekin gogoratuz eraman dute lekukoa Xabier Zubizarretak eta Coral Calvok. Horrela, omenalditxo egin nahi izan diogu Itziarri, euskararen alde egin zuen lan guztiagatik".



## "El parque del crepúsculo" lanak itxiko ditu Eibarko Antzerki Jardunaldiak

Gaur agurtuko ditugu Eibarko XLV. Antzerki Jardunaldiak, 19:00etan Coliseon taularatuko duten "El parque del crepúsculo" lanarekin. Maricastañak eta Ourenseko Unibertsitateko Antzerki Gelak Paul Austerren "Sunset Park" eleberriaren inspiratutako lana aurkeztuko dute. Antzezleak Iván Iglesias, Eva García, Iria Losada, Luz Ocampo, Candela López, Miguel Estévez, Marcos Lama, Lola Fernández Méndez, Conchi Pérez, Chelo Cortiñas, Pilar Mira, Esther Pérez eta Silvia Domínguez dira eta zuzendaria Fernando Dacosta. Sarrerak 5 euro balio du.



## Larrain dantza errepasatzeko entseguak, martitzeno

Euskal Jaia gerturatzen doala eta, Arrate Kultur Elkarteak eta Klub Deportiboak larrain dantza errepasatzeko entseguak antolatu dituzte. Datorren astean, apirilaren 5ean hasita, martitzeno izango dira, 19:00etan, Arrateko Andra Mari ikastetxean. Izena emateko arratekultu@gmail.com helbidera idatzi edo 638284912 telefono zenbakira deitu daiteke.





## Herriko artisten erakusketa inauguratuko dute gaur

Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa zabalduko dute gaur, 19:00etan Portalean. Urtero bezala, erakusketan parte hartzera animatu diren elkarteko bazkideek orotariko artelanak (marrazkiak, pinturak, grabatuak, eskulturak, egur-taillak, zeramika-lanak, argazkiak, damaskinatuak eta larru-bozeltzeak) erakutsiko dituzte, estilo eta teknika ezberdinekin sortutako 70 lan inguru guztira. Apirilaren 30era arte egongo da ikusgai eta martitzenetik domekara joan daiteke ikustera, 18:30etik 20:30era.



## Emakumeak omentzeko poesia, musika eta dantza

Aurten 12. edizioa bete duen “Grito de Mujer” Nazioarteko Poesia eta Arte Jaialdiarekin bat egin zuen Eibarrek, Errebal Plazan aurreko barixakuan egin zen ekitaldi arrakastatsuan. Maite Lorenzoren poesia taldekoekin batera beste hainbatek hartu zuten parte.

Jaialdiko bideoak YouTube kanalean ikusgai:



## “Emakumearen hitza ez da ur gaineko bitsa” dokumentala

Portalean ikusgai egon den “Berdintasunaren bide luzea” erakusketa aberasteko eta osatzeko egin den “Emakumearen hitza ez da ur gaineko bitsa (Palabra de mujer)” dokumentala Ego Ibarra batzordearen YouTube kanalean ikus daiteke. Bideoak Eibarko 82 emakumeren testigantzak jasotzen ditu eta XX. mendean zehar gure herriko andrazkoek bizi izandakoa batzen du, bai eta oraingo gazte batzuen iritzia ere.

## Eibar BHI-koen artelanak ikusgai

Eguen arratsaldean zabalduko dute Eibar BHI-ko artisten erakusketa Portalean. Beste batzuetan bezala, aurten ere ikasturtean zehar egin dituzten lanak erakutsiko dituzte Eibar BHI ikastetxeko ikasleek. DBH 2. mailatik hasi eta 2. Batxilergora arte, Artisautzan, Plastikaren eta Batxilergo Artistikoko ikasgaietan egin dituzten lanak ikustera joateko aukera izango da, apirilaren 30era arte.




## Mezu ezkutu gehien asmatzen dituenarentzat saria dago

Udalak eta Eibarko bi euskaltegiek antolatu duten “Mezu ezkutuak” lehiaketara aurkeztu diren mezuetatik gehien deszifratzen dituenarentzat saria dago: Coliseorako eta Armagintzaren Museorako sarrerak eta Udalaren hainbat argitalpen. Parte hartzeko eibar-ko-euskara.eus webgunean sartu eta taula deskargatu behar da. Erantzunak euskara@eibar.eus helbidera bidali behar dira (azken eguna, apirilak 10).



AURKITU 8 DESBERDINTASUNAK

soluzioa



L  
A  
B  
I  
R  
I  
N  
T  
O  
A



Aurreko astekoan 7 ziren ezberdintasunak



7	2				6	5
	9	7			2	
				3		
8	4		1			
			3	9	5	
			4		5	1
		1				
	6			4	1	
5	1				3	7

A	P	C	E	D	S	L	S
B	A	L	P	C	B	Z	C
C	C	B	E	L	P	V	E
L	C	P	A	L	P	A	B
B	E	C	E	C	B	Z	C
G	E	C	E	C	B	Z	C
T	I	A	L	P	A	B	
T	I	A	L	P	A	B	

soluzioa

S  
U  
D  
O  
K  
U

G	E	C	E	C	B	Z	C
B	A	L	P	C	B	Z	C
C	C	B	E	L	P	V	E
L	C	P	A	L	P	A	B
B	E	C	E	C	B	Z	C
G	E	C	E	C	B	Z	C
T	I	A	L	P	A	B	
T	I	A	L	P	A	B	

soluzioa

		9				5
		3	4			
1			7	2		8
		4	5			2
3		2	4	8		9
2				9	1	
4	7		2			1
				4	7	
6				3		

# Apirilak 1/7

## BARIXAKUA 1

### ZINE-FORUMA

**18:30** "Lady Bird" (Greta Celeste Gerwing). Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Jarduera irekia. Portalea (areto nagusia).



### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "El parque del crepúsculo". Coliseo.

### INAUGURAZIOA

**19:00** Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa. Portalea.

### KORRIKA KULTURALA

**21:00** Bertso afaria: Maider Arregi eta Unai Iturriaga. Gai-jartzailea: Jon Mikel Mujika. Kultu taberna.



## ZAPATUA 2

### ZUMBA MARATOIA

**11:00** V. Zumba Maratoi Solidarioa. Astelena frontoia.

### SKATE

**11:00/14:30** Skate ekitaldia. Errebal Plazaia.



## MARTXA

**12:00** "No al paseo que nos entierra-Ekialdea Bai" auzo marxa. Untzagatik Azitainera.



### JUGGER HASTAPENAK

**16:30 eta 18:30** Jugger hastapenak. Errebal Plazaia.



## DOMEKA 3

### PILOTA

**12:00** Euskal Pilota Egokitua Sari Nagusia. Astelena frontoa.



## MARTITZENA 5

### IBILBIDE OSASUNTSUAK

**10:00** Herritar guzientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkarateak antolatuta. Elkartearen lokaletik abiatuta (Ardantza, 11).

## EUSKAL JAIA

**19:00** Larrain dantza errepasoa. Arrateko Andra Mari ikastetxea.

## EGUAZTENA 6

### AURKEZPENA

**18:30** Euskara arnasberri-tzeko proposamen politikoa, Eibarko Sorturen eskutik. Kultu.



## EGUENA 7

### KONTZENTRAZIOA

**12:00** Euskal preso larriki gaixoak etxean egon behar dutela aldarrikatzeko. Eibar Ospitalea.



## MUSIKA

**19:30** Julen-en "Ixilduak" abestiaren aurkezpena. Coliseo.



## ERAKUSKETAK

**Apirilaren 30era arte:**

- **EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA.** (Portalea).



- **"HEMINGWAY & EUSKAL HERRIA"** (Eibarko Armagintzaren Museoa).

**Apirilaren 7tik 30era:**

- **EIBAR BHI-ko artistak.** (Portalea).

## Eskualdeko Agenda

## ERMUA

### ANTZERKIA

**1ean (barixakua) / 20:30** Ermua Antzokia. "Las piscinas de la Barceloneta". 10 euro.



## MUTRIKU

### BERDEL EGUNA

**2an (zapatua).**

**Goizean:** Merkatu Txikia, Artisau Azoka, Belauntzien Erregata, Abesbatzak, Zesta-punta Jaialdia.

**13:00:** Dastaketa herrikoia.

**18:00:** Errietan. Jarraian, Gozategi.





# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **2an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **3an:** 17:00, 20:00
- **4an:** 20:30

### “Licorice pizza”

Zuzendaria: Paul T. Anderson



## 2 ARETOA

- **2an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **3an:** 17:00, 20:00
- **4an:** 20:30

### “La cima”

Zuzendaria: Ibon Cormenzana



## ANTZOKIA

- **2an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **3an:** 17:00, 20:00
- **4an:** 20:30

### “Morbis”

Zuzendaria: Daniel Espinosa



\*\*\*  
**FUNEUSKADI**  
Guzuzteko Zerbitzua

\*\*\*  
**FUNERARIA MUGICA**  
Funerariak



**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951**  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

<p><b>Eibar:</b> Otaola, 27</p> <p><b>Eibariko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Xaillon, s/n, SIGMA Industrialdea (Otasoko hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ermuako bulegoa:</b> Marqués de Valdespina, 16</p>
--	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



## Felipe Arrizabalaga Mardaras

**3. URTEURRENA**  
2019/03/31

“Egunak hobeak ziren zurekin batera”

- ETXEOAK -





943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Apirillaren 2xan 27 urte beteko dozunez, zorionak, **MAIALEN**. Maite zaittugu. Etxekuen eta, batez be, Maiteoren partez.



Zorionak, **ISABEL**, martitzenian 8 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez. E.T.raíño eta buelta maite zaittugu.



Zorionak, **ION**, bixar 2 urte beteko dozuzelako! Musu eta besarkada haundi bat famelixaren partez!!



Zorionak, **VEGA!!!!** Bixar bi urte beteko dozuz, printzesa! Musu haundi bat etxeko guztion partez!



Zorionak, **KENAN** (martitzenian urtetxua) eta aitak **KOLDO** (atzo 36 urte) bete zenuzuelako. Musu haundi bat etxeko danon partez.

**ELGOIBARKO IZARRAK ALDI BATERAKO AISIALDIKO ZUZENDARIA BEHAR DU**

**LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:**

- Aisia hezitzaile sailko proiektuak eta ekintzak koordinatzea eta aurrera eramatea (familia programa, udalekuak, nerabeak, euskara errefortzuak...)
- Lanlari profesionala koordinatzea
- Elkartogintza eta herrigintza sustatzea

**BALORATUKO DA:**

- Psikopedagogia, Pedagogia edo Gizarte Zientzietako aritzeko titulazioa izatea
- Parte-hartzea, hezikidetzaren edota inklusioaren inguruko ezagutza izatea
- Lan taldeak koordinatzen esperientzia izatea
- Elusko gintzan jardun izana
- Elgoibarko edo inguruko izatea
- Mailgutasuna izatea, egutegi eta ordulegiari dagokionez
- Gidabimena eta autoa izatea

Curriculumak bidaltzeko (kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus) azken eguna: **APIRILAK 8**  
Informazio gehiago: 943 741 626 / 943 499 169

**Miren  
Iriondo Rementeria**

2022/03/22

"Eskerrik asko,  
**AMAMA**, eman  
diguzun ezagutza eta  
maitasun danagaittik"



- Aintzane eta Iori; Olatz eta Mikel; Manex, Intza eta Ekhi -

**Luis Angel "Susó"  
Escolar Sagredo**

2022/03/26

"*Soldadito Marinero.*  
Eskertuta zure  
ondoan bizitutako  
guztiarengatik.  
Plazerra izan da"



- LAGUNAK -

# Iragarki laburrak



943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Pisu eguzkitsua salgai Jardine-ta kalean. 2 logela, trasteroa. Garajearekin. Tel. 610890474.

### 1.2. Errentan

- 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 631907807.
- Logela alokatzen diogu neska bati. Sukaldea eta egongela konpartitzeko aukera. 350 euro (gastu guztiak barne). Tel. 602051567.
- Zumaian 92 m<sup>2</sup>-ko pisua alokagai abuzturako, 3 logela, 2 komun eta egongela handia. Igoailua. Zerbitzuetatik gertu kokatua. Tel. 660717372.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Txabola salgai Ipurua inguruan. Terrenoarekin. Tel. 649258913.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da goizez haurrak eskolara eramateko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. Tel. 648625209.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiei laguntzeko, maskotak pasiatzeko eta errekaduak egiteko. Tel. 642030121. Luis.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 685640344.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita as-

teburuetan eta oporretan ere. Interna. Tel. 643584198.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita gauetz eta asteburuetan ere. Orduka. 14 urteko esperientzia tabernan. Tel. 677452547 eta 632419944.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta dendari bezala (kutxazain ikastaroarekin). Tel. 602187142.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta dendari bezala (kutxazain ikastaroarekin). Tel. 631483249.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo gaixoak
- zaintzeko arratsaldez edo asteburuetan. Tel. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile bezala. Tel. 642195774.

### 4.2. Langile bila

- Zerbitzaria behar da tabernarako. Esperientziarekin. Jor-nada osorako kontratua. Tel. 627412431.
- Estetika zentro baterako langilea behar da. Ezinbestekoa euskeraz jakitea. Bidali curriculumak: olamarsan@gmail.com
- Eskarmentudun sukaldari-laguntzailea behar da. Ezinbestekoa autoa izatea. Sukaldaritza orientalean esperientzia izatea baloratuko da. Tel. 670672515.
- Kamarera/o behar da asteburuetan jatetxe batean lan egiteko. Tel. 659539861.

- Nagusi bat zaintzeko pertsona behar da. Ordutegia: 09:30-11:30 eta 20:30-21:30. Derrigorrezkoa akreditazioa izatea eta janaria prestatzen jakitea. Tel. 646206088.
- Esperientzia duen sukaldaria behar da. Tel. 676081717.
- Esperientzia duen saltzailea behar da merkataritzarako. Tel. 676081717
- Agente komertziala behar dugu Mapfre-n. Erregistratu zaituz: <https://jobs.mapfre.com/job-invite/20597/>
- Ilea-paintzailea behar da Eibarren amatasun baja bat betetzeko. Apiriletik azarora arte. Tel. 697484245 edo laga curriculumak Bidebarrieta 16an.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitateko prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. Tel. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

# ATE IREKIAK



AURREZ AURREKOA

Data: APIRILAK 6, 17:00: GOI MAILAKO ZIKLOAK

ESKAINITZA

- |                                     |  |                                     |   |
|-------------------------------------|--|-------------------------------------|---|
| <input checked="" type="checkbox"/> | MERKATARITZA JARDUERAK   | <input checked="" type="checkbox"/> | EGOKITZAPEN FISKOAK                                     |
| <input checked="" type="checkbox"/> | NAZIOARTEKO MERKATARITZA   | <input checked="" type="checkbox"/> | GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA            |
| <input checked="" type="checkbox"/> | GARRAIO ETA LOGISTIKA  | <input checked="" type="checkbox"/> | MIKROINFORMATIKA SISTEMAK ETA SAREAK                    |
| <input checked="" type="checkbox"/> | ADMINISTRAZIO KUDEAKETA  | <input checked="" type="checkbox"/> | PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA                |
| <input checked="" type="checkbox"/> | ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK                                       | <input checked="" type="checkbox"/> | SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA              |
|                                     | + ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK<br>ESKAINITZA PARTZIALA ARRATSALDEZ | <input checked="" type="checkbox"/> | WEB APLIKAZIOEN GARAPENA                                |
|                                     |  | <input checked="" type="checkbox"/> | ZIBERSEGURTASUNA INFORMATIOAREN TEKNOLOGIEN IVORUNEETAN |

Ciudad Herboldea, 29,  
20600 Eibar, Gipuzkoa  
943 89 92 11  
idazkaritza@uni.eus  
www.uni.eus | @uni\_eus



IKASTETXE  
PUBLIKO  
DOAKOA

...aurten bai...

maiatzak  
ZAPATUA 21

Urkizutik Untzagara  
12:00 – 14:00

Izan zaitez zu ere tantan!

**tantanez tantan**



# gremioen gida



943-206776

## ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bax  
Tfnoa: 943 12 73 50  
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. SERBIZIOAK



## ITURGINAK

Miguel Azpiri  
**ITURGINA**

- Korporaketak  
eta ordezkatzek  
ITURGINTZAN  
- Korporaketak  
eta interbideak  
KALEFAKZIOAN

BEREHALAKO  
ZERBITZUA  
ematen da

635 13 38 41

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txanta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoa: 943 12 13 87 www.ulmar.net

ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkitu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ERREFORMAK



ESTUDIOS  
ARRILLAGA

PROIEKTUAK - ERREFORMAK  
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Rosario, 15 - ELGOIBAR -  
605 713 168 943 744 019

## KRISTALAK



TALERRA: ERREKATXU, 3  
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
info@cristalcrisacha.com ERAKUSKETA  
eta faxa: 943 203 903 Arkitzeneko Zuhain

## ELEKTRIZITATEA



TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
610 532 922 www.thelecer.com

## IGELTSEROAK



Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun habeaz  
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa: 943-120108  
www.irazabal.net

## PINTURAK



Zoru mota guztiak  
Pinturak / Dekorazioa  
Errebal, 21 www.bagliettoibar.com  
Tel: 943 201 922 bagliettoibar@kaixo.com

Tel. 667 54 89 16



PINTURA LANAK S.L.